

OSTEGUNA

2019/09/26
7. urtea, 1.115. zenbakia
107,6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €



Manifestazioa egin zuten atzo eguerdian Tolosan grafikagintzako langileek. JOSU ARTUTXA

Hitzarmen «duina» izan arte segiko dute

Grafikagintza sektoreko langileek bosgarren greba eguna izan zuten atzo, eta beste bi egun izango dituzte datorren astean; «lan baldintzak hobetuko dituen hitzarmen duin eta justua» aldarrikatzen dute //2

«Marrazteko ohitura bidean galtzen dela uste dut»

OIHANA UGARTE
ARTISTA

Xilografia tailerra eskainiko du Tolosako jabetze eskolan, tolosarrak, urriaren 1etik aurrera // 5

Hizkuntza gutxitzuz aritzeko egitasmoa


Zizurkilgo zortzi gaztek hartuko dute parte, Euskal Herriko nahiz Irlandako gazteekin batera // 4

«Ikusi dut posible dudala errepidean nazioarteko mailan aritzea»

EUKENE LARRARTE
TXIRRINDULARIA

Errepideko lasterketetan lehiatuko da Eneicat Pecafer taldearekin //7

Nork itxaron nahi du bihar arte?



Audi Q5, hilean 290 eurotik*
It's Audi Time.

Autowag Tolosa
Usabal industrialdea, z/g
20400 Tolosa
Tel.: 943 67 35 81

Audi Q5 Advanced 35 TDI quattro 120 KW (163 CV) S tronic. CO2 igorpenak (g/km): 189-200 (NEDC: 144-146). Kontsumoa (l/100km): 7,2-7,6



Greban jarraituko dute, hitzarmen «duin eta justu» bat lortu arte

Grafikagintza sektoreko langileek bosgarren greba eguna izan zuten atzo, %70eko jarraipenarekin; lanuzteekin jarraituko dute, gaur, eta datorren asteko bi egunetan.

Josu Artutxa Dorronsoro

Ekainean eta uztailean hasi ziren mobilizazioekin. Orduan, ELAk, LABek eta UGTk deituta, lau greba egun egin zituzten grafikagintza sektoreko langileek. «8 hilabete dira herrialdeko hitzarmenaren negoziaketak hasi zirela. Orduetik, KPIari lotutako igoera hutsal bat soilik eskaini du patronalak, langileen eskaera guztiak baztertuz. Hori ez da nahikoa. Gure jarrera negoziatzailea izan den arren, ADEGIk jarrera zorrotza mantendu du, negoziatzeko ateak itxiz eta sektorea konfrontaziora eramanez».

Atzo, Tolosako Trianguloa plazan elkartu ziren sektoreko dozenaka langile, «ADEGIren negoziazio borondate falta eta arduragabekeria» salatzeke. Ondoren, manifestazioa egin zuten. Sindikatuek esandakoaren arabera, «greba arrakastatsua» izan zen, %70eko jarraipena izan zuelako. «Langileek bat egin dute deialdiarekin, eta grebaren jarraipen zabal hau are eta garrantzitsuagoa da kontuan izanda sektoreko enpresen %90 baino gehiago enpresa txikiak direla».

Egun, sektoreak bizi duen egoera «ona» dela diote. «Enpresetako lan karga handia da, eta ondorioz, ulertezina eta onartezina egiten zaigu ADEGIren jarrera. Proposamena hobetzeko tartea handia da. Hala ere, soldata igoe-



Trianguloan elkartu ziren langileak, manifestazioari ekin aurretik. J. ARTUTXA

ra batez gain, lan baldintzak hobetuko dituzten eskubide sozialak ere beharrezkoak dira, hala nola, soldata igoera duinak, lizentzien egokitzapen eta hobekuntzak, kontratuen hobekuntzak, Estatuko hitzarmenaren aurrean blindajea, prekarietatearen aurkako neurriak eta errelebu kontratua».

GUZTIRA, 8 GREBA EGUN

Sindikatuetakoa kideen hitzetan, «ADEGI izan zen gure proposamenak ukatu zituen, mahaitik altxa zena eta hausnarketa bat egin behar zuela esan zuena. 3 hilabete geroago, emaitzarik ezagutu gabe jarraitzen dugu. Negoziazio mahaia hautsita dago». Ondorioz, Gipuzkoako Enpresen Elkarteak «sektorea

konfrontaziora eraman duela, eta horregatik, sindikatuen eskaerak kontuan izango dituen proposamen serio batekin negoziatzioaren aldeko apustua egin behar duela» azpimarratzen dute.

Grafikagintzako langileak berriro mobilizatuko dira, «guztiantzat izango den sektoreko hitzarmen duin baten alde, gu garelako gure lanpostuetara itzuli nahi dugun lehen pertsonak». Gaur, eta urriaren 2an eta 3an izango dira hurrengo lanuzteak. Ekaineko eta uztaileko lau greba egunak kontuan izanda, sektoreak 8 greba egun burutuko ditu, eta beraien esanetan, «ez dira azkenak izango, sektorearentzat duina, justua eta onargarria den hitzarmen bat lortu arte mobilizatzen jarraituko dugulako».

Atzoko elkarretaratzearen aurretik, auto karabana egin zuten eskualdeko enpresetatik. Gaur, gauza bera egingo dute Buruntzaldean, 12:00etan ADEGIren egoitza parean elkartu aurretik. Datorren astean, berriz, Tolosan eta Donostian bilduko dira.



Mitsuo Makino lidako alkatea (ezkerretik, laugarrena), zinegotziekin. ATARIA

Iida hiriko alkatearen bisita jaso du udalak

Txotxongiloen Lagun Hirien Elkarteko kideak dira bi herriak. Besteak beste, herriko gune ezberdinak eta Topic museoa bisitatu ditu Mitsuo Makinok.

Erredakzioa

Astelehenean heldu zen Mitsuo Makino, Japoniako Iida hiriko alkatea, Tolosara. Makino alkateak Tolosa bisitatu nahi izan du, Topic museoa bertatik bertara ezagutzeko. Izan ere, AVIAMAko, Txotxongiloen Lagun Hirien Elkarteko, kideak dira Tolosa eta Iida; aurrez, bi alkateek elkar ezagutzeko aukera izan zuten Japonian ospatutako kongresu batean, baita Tolosako buruhandi eta erraldoiek bertara egindako bisitan ere. Udaletik adierazi dutenez, «txotxongiloek, buruhandi eta erraldoiek eta oro har, gure kulturarekiko interesak ekarri du Makino gurera».

Udal ordezkariak harrera egin zioten udaletxean. «Harremanak sendotzeko eta elkarlanerako borondatea azaldu zuten alkateek. Ondoren, bisita gidatua egin zuten herritik, gure historia eta ondarea ezagutarazteko». Topicen amaitu zen ibilbidea. Museoaz gain, eraikineko espazio ezberdinak ezagutu zituen.

«Kulturaz gain, alkate japoniarak gastronomiarako zaletasuna duela erakutsi zuen. Hori dela eta, iluntzean sagardotegira hurbildu ziren tokiko sagardoa probatu eta honen ekoizpenaren nondik norakoak ezagutzeko». Bi eguneko egonaldia amaiara emateko, asteartean, Boinas Elo-segi enpresa bisitatu zuten.

Alkoholismoari eta bere irtenbideei buruzko bilera, gaur

TOLOSA // Tolosako Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldeak, bilera irekia egingo du, gaur, Corpus Christiko (Kondeko aldapa) lokalean, 19:30ean. Alkoholismoaren eta bere ondorio eta irtenbideen inguruan hitz egiteko baliatuko dute batzarra. Gaiaren inguruko informazioa eskuratu nahi duten herritar guztiak «ongi etorriak» izango direla adierazi dute elkartetik.

Tolosa Kantari eta Tolosako Musika Banda, elkarrekin

TOLOSA // Azken urteetan egin bezala, aurten ere, iraileko azken larunbatean, Tolosa Kantarik eta Tolosako Musika Bandak kontzertua eskainiko dute, elkarrekin, Plaza Berrian. 12:00etan kalejira egingo dute biek, eta ondoren izango da emanaldia. Tartean, *Isil-isilik* dago, *Eperrak* eta *Guk Euskaraz* kantuak entzun ahal izango dira; ikusleek, gainera, abesteko aukera izango dute.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburak.eus-en

Biek ezagutzen dute aurrez udal jarduna; Pello Estangak azken zortzi urteak eman ditu alkate Anoetan eta hirugarren agintaldia abiatu berri du; Iruran berriz, duela bi legegaldi zinegotzi izan ondoren, orain alkate bezala jardungo du Gorka Muruak. Elkarren ondoan dauden bi herrietako hautetsiek asmo handiak dituzte lau urteotarako

Jon Miranda

Hirugarren agintaldia du Anoetako alkate bezala Pello Estanga Lasak (Tolosa, 1962). EH Bilduko udal taldean inguruan izango dituen kide guztiak berriak ditu eta haiekin batera «indarberrituta» ekingo die hurrengo lau urteei.

Lanari tamaina hartuta dagoeneko?

Bai. Gustura etortzen naiz lanera egunero. Hauteskunde aurretik, nire barruko eztabaida izan nuen, aurkeztu edo ez aurkeztu. Prest nengoen alkatetza uzteko baina baita ere jarraitzeko. EH Biduren oinarriaren esku utzi nuen erabakia eta gehiengo zabal batek esan zuen nik jarraitzea nahi zuela. Horrek aurkeztera animatu ninduen eta hementxe gaude.

Ordezkaritza politikoa bederatziz izateak hamaika izatera pasazarete agintaldi honetan. Zer eragin du horrek?

Beti ere lana banatzeko aukera gehiago ematen du. Gure taldean bost ginen lehen eta orain sei gara. Bat gehiago izateak mesede egiten du.

Zein harreman espero duzu oposizioarekin datozen lau urteetan?

J.M.

Duela bi agintaldi zinegotzi izan zen Gorka Murua Makuso (Irura, 1976) Irurako Udalean eta orain berriz, alkate dihardu.

Ezberdin ikusten al da udala, zinegotzi edo alkate postutik?

Egia da, ardura mailan alkateak baduela erreferentzia puntua. Tokatzen zaion egin beharra da, sail ezberdinetako lotura egitea eta zerbitzu eta teknikarien arteko lanak koordinatzea. Gustura nabil lan horretan, talde indartsua daukadalako atzean.

Azken lau urteetan EA Jk egin duen udal gobernuaren kudeaketaz zein iritzi duzu?

Nik uste dut, geldiune bat egon dela herriko proiektuei dagokionez. Ez da akordioetara iristea lortu, nahiz eta saiakera batzuk egin. Herritarren eta udalaren arteko distantzia handia izan dela uste dut. Orain hori aldatzeko pausoak eman beharrean gaude.

Udaletxeko eraikinaren berriztatzea izan zen desadostasunetako puntuetako bat aurreko legegaldian.

Bai. Udaletxeak berritze bat behar du, irisgarritasunaren ikuspegitik gabezia dezente dituela-

«Badugu ardura adineez nagusi direnekin»

PELLO ESTANGA ANOETAKO ALKATEA

EH Bilduko udal taldean, herrigintzan parte hartzen duen jendeaz inguratuta arituko da lau urteotan, «animo askorekin eta ilusioz»



J.M.

Aurreko lau urteetan oposizioa desagertuta egon zen. Ez ziren azaltzen ez batzorde eta ezta batzarretara ere. Ez zuten ia ekarpe-

nik egin. Orain sartu direnak espero dut lanerako prest egotea. Proiektu nagusiak aipatzen hasita, ia prest duzue Gaztele-

ku berria. Noiz zabalduko duzue?

Obrak urriaren lehenengo astean bukatuko dira. Zerbitzu berri bat jarriko dugu martxan Gaztelekuarekin batera. Haur, nerabe eta gazteen parte hartzea sustatzeko zerbitzua izango da eta azpiegitura jartzeaz gain, pertsona bat kontratatuko dugu. Uda honetan, diru laguntzak atera dira gazteak enplegatzeko eta azaroaren 30a baino lehen dinamizatzailer bat hartuko dugu. Anoeta bertakoa izango da eta 30 urtetik beherakoa. Urtebeteko kontratua izango du eta aurrera begira ikusiko dugu lanpostua egonkor-tu edo ez.

Bi estalpe aurreikusten dituzue herrian. Noizko?

Ikastolan jarriko dugu bat. Atzeratu egin zaigu hori, baina ple-guak prestatuta daude eta urtea amaitu baino lehen egin nahi genuke. Beste estalpea plazan egingo dugu. Parte hartze prozesua jarri genuen martxan, estalpea behar ote zen edo ez jakiteko, non joango zen zehazteko eta zein ezaugarri izango zituen erabakitzeko. Kontsentsura azkar iritsi ginen eta eliza eta frontoiaren arteko espazio horretan egingo da. Obra egin aurretik ordea, irisgarritasuna bermatzeko lanak egin behar ditugu plazan. Datorren urtean ez bada, 2021erako gauzatu egotea espero dugu.

Beste proiekturen bat baduzue aipatzeko?

Guk, batez ere, azpiegitura eta obrei baino garrantzi handiagoa ematen diegu pertsonari. Gazte-riarekin batera, badugu ardura adineez nagusi direnekin ere. Adin piramidea irauli egin da eta Anoetan egongo dira 400 pertsona baino gehiago erretiratuta. Erroka bezala ikusten dugu haiek herriko parte aktibo bihurtzea eta zaintzaren arloan ere badugu zer pentsatua.

«Irura herri seguru eta eroso izatea nahi dugu»

GORKA MURUA IRURAKO ALKATEA

Udal gobernuaren EH Bilduko udal taldeak, lehen asteak «motorra olioztatzen» eman ditu, 2023ra bitartean egitasmo berriei heltzeko



J.M.

ko, instalazio elektrikoa zaharkituta dagoelako eta itoginak daukelako, besteak beste. Gu kritikoginen, ez behar horrekin, prozesuarekin baizik. Pentsatzen

dugu, benetako parte hartze prozesurik ez zela eman. Guk lehenengo pausotara itzuli nahi genuke. Herritarrei proiektu ezberdinak aurkeztuko dizkiegu,

aurrekontu ezberdinekin. Ahalik eta adostasun handienetara iristen saiatuko gara.

Zahar etxeko lokala izan da polemika iturri azkeneko urteetan. Zein da zuen asmoa?

Duela bospasei urte parte hartze prozesu bat eman zen. Taberna zegoen lehen eta jarduera horrekin jarraitzea erabaki genuen, baina obrak egin behar zirenez lokalean, herritarrekin adostu nahi izan genuen prozesua. Hiru proiektu aurkeztu ziren, bakoitza anbizio jakin batekin. Aukera baten alde egin zen, baina agintaldi berriarekin udal gobernu berriak erabaki zuen proiektua martxan ez jartzea. Urteak pasa dira eta herrian beste behar batzuk sortu

dira. Herrira eramango dugu galdera berriz ere. Abendua edo urtarrila aldera, auzoz auzoko bilerak egingo ditugu hiru multzotan banatuta eta gai zerrendako puntuetako bat, zahar etxea izango da eta bestea haurtzaindegi gainean dagoen lokalaren erabilera.

Herrian bizia sustatzeko erre-zeta magikorik baduzue?

Nik uste Irura erakargarri egiteko hainbat alor ukitu behar direla. Gu saiatuko gara alor batzuk lantzen, trafikoa edo mugikortasunaren inguruan eragiteko. Herriko komertzioa sustatzeko kanpainak ere landuko ditugu. Guztia joango da zuzenduta helburu handi horretara: Irura herri seguru eta eroso izatea nahi dugu, bizitzeko erakargarria.

Zein beste arlotan jarri nahi duzu azpimarra?

Beste proiektu garrantzitsu bat politika sozialak indartzea izango da, batez ere, adineko pertsonari zuzenduta. Oinarriko beharrak aseta ez dauzkatenentzat diru laguntza partidak jarriko ditugu. Zaindu beharreko kolektibo bat dela uste dugu, asko eman dute eta horietako batzuk behintzat ez dute merezi dauden egoeran egotea.



elduaien
hizkuntzaeskola · academia del dlo mas

Hizkuntzak hitzak baino gehiago diren tokia!

- Mailaren araberako hizkuntza ikastaroak
- 3 urtetik aurrera, gazte eta helduentzat, talde murriztuetan
- Metodologia dinamikoa, dibertigarria eta parte hartzailea
- Cambridge Assessment English zentro aztertzaile ofiziala
- Familientzako deskontu interesgarriak!

Tarifa berriak haurrentzat!

- ① ELDUAIEN GOROSABEL
- ② ELDUAIEN NAFARROA ETORBIDEA
- ③ ELDUAIEN MARTIN JOSE IRAOLA
- ④ ELDUAIEN KONDEKO ALDAPA



Irun • Donostia: Intxaurren (2) + Ondarreta + Gros • Lasarte (2)
Urnieta • Andoain • Villabona • Tolosa (4) • Alegia • Beasain

943 67 47 33 kondeko@elduaien.com www.elduaien.com



Egonaldietan parte hartuko dute Zizurkilgo zortzi gaztek; argazkian horietako sei. J.M.

Hizkuntza gutxituen gaia lantzeko jarduerara antolatu dute Zizurkilen

Herriko zortzi gaztek, Elgoibarko, Donibane Garaziko eta Irlandako Galway herriko beste hainbat gazterekin batera, Erasmus + programan hartuko dute parte, bi egonalditan

Jon Miranda Zizurkil

Europako hizkuntza aniztasunaz ohartaraztea, leku ezberdinetako gazteek egoera linguistikoko antzekoak bizi dituztela ikustaraztea eta hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuen inguruko lanketa egitea. Helburu horiek ditu 14 eta 16 urte arteko gazteentzat prestatu duten programak. Proiektuan 32 nerabek hartuko dute parte: Zizurkilgo zortzik eta Elgoibarko, Donibane Garaziko eta Irlandako Galway herriko beste zortzina gaztek. Astebeteko bi egonaldi egingo dituzte, lehendabizi Galwayen urriaren 29tik azaroaren 4ra, eta ondoren Hondarribiko aterpetxean, abenduaren 2tik 9ra. Etzi, Eskal Herriko nerabeek elkar ezagutzeko egun osoko topaketa egingo dute Donostian.

Proiektuak kezka bati erantzuten dio, Iker Urruzola Zizurkilgo alkateak nabarmendu duenez: «Udalak urteak daramatza nerabeekin lan egiten Gaztezuloren bitartez, eta azkenaldian kezka sortu da euskararen erabilerari

dagokionean, helduenek batez ere, gaztelaniarako joera daukatelako». Elgoibarren ere gai berekin arduratuta zeudela eta, lankidetzan, gazteen arteko trukaketa proiektu bat lantzen hasi ziren, Donibane Garaziko lizeoarekin batera. Europako Batasunaren Erasmus + programara aurkeztu zuten egitasmoa, beste hizkuntza gutxitu bateko gazteen eguneroko errealitatea ezagutzeko aukera ematen duen programara, alegia. Bertan parte hartzen du Irlandako Galway herriko Muintearas Teo elkarteak eta era horretara diseinatu dute egonaldi bikoitza. Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu du parte proiektuan eta Eusko Jaurlaritzak babestu du.

ASTEBETEKO BIEGONALDI

Hizkuntzarekiko hausnarketa sorrarazi nahi diete gazteei eta horretarako egonaldi bakoitzean bost tailer antolatu dituzte. Tailer horietan hizkuntza gutxituen gaia landu eta sakonduko dute, arlo desberdinetan. Maite Amenabar Zizurkilgo alkateordeak

azpimarratu duenez, «ezagutzari, erabilerari, kultur kontsumoari eta beste hainbat alorri lotutakoak izango dira».

Irlandako egonaldia, Gaelikoren egoera ezagutzeko eta Irlandakoeko egoera diglosikoa nola bizi duten hurbilagotik ulertzeko baliatuko dute. Abenduan, berriz, Euskal Herrian ibiliko dira 32 gazteak. Astebete pasako dute hemen eta egoera soziolinguistikoa hurbilagotik ezagutzeko baliatuko dute. Azalpen eta jarduerak euskaraz eta ingelesez egingo dituzte eta Zizurkilgo taldea dinamizatzen, Ane Artutxa eta Julen Alberdi hezitzaileak ariko dira.

Zizurkilgo Udalak ez du proiektua ekimen isolatu bezala ikusten, «elkarlan baten hasiera gisa baizik». Irlandako eta Euskal Herriko egonaldiak bukatuta, nerabeek lanketa berezia egingo dute gazteleketan eta ikastetxeetan, «haien esperientzia zabal dezaten eta euren inguruan hizkuntza ohiturak aldatzen saia daitezzen», aipatu du Amenabarrek.

«Denok daukagu zerbait adierazteko ahalmena»

OIHANA UGARTE IRIARTE ARTISTA

Lehen aldiz irakasle lanetan ariko da Tolosako jabetze eskolan, xilografia tailerra eskainiz; jakintza kolektiboa sortzea eta sormenari ateak zabaltzea bilatuko du, emakume artisten izen-abizenei ere tarte eginez.

Itzea Urkizu Arsuaga

Oihana Ugartek (Tolosa, 1974) arduraz eta ilusioz hartu du Tolosako jabetze eskolan xilografia tailerra eskaintzearena. Diziplina edozein dela ere, kolore, pentsamendu eta adin desberdinetako emakumeak elkartu eta sinergiak sortzea ezinbestekoa iruditzen zaio, «emakumeok sekulako potentziala dugulako». Horrela, artelanetan trebatzearekin batera, urriaren 1etik aurrerako tailerra norbere burua berresteko ariketa bat ere izango dela dio.

Zer da teknikoki xilografia izeneko teknika?

Xilografia grabatu mota bat da. Antzinako teknika bat da, IV. mende inguruan Japonian eta Txinan asmatua. Estantak erreproduzitzeko teknika bat izan da sorreratik eta, horretarako, marrazkia egurrean zizelkatzen da lehenengo, gero egurra tintatzatzen da, eta hori paperera pasatzen da azkenik. Horrela, xilografia izan zen, irudi bat behin eta berriro erreproduzitzeko aukera eskaini zuen lehen teknika. Gaur egun, garatu egin da teknika, eta ikastaroan xilografia linoio izeneko materialaren gainean landuko dugu. Errazago zizelkatzen da, ekonomikoagoa da, eta, ondorioz, ikastaro bat eskaintzea ahalbidetzen du.

Zuk zeuk, nola ikasi zenuen teknika hori erabiltzen?

Hiru urtez aritu nintzen, Debako Arte Eskolan, Grabatu kalkografikoa ikasten, kobre gainean. Teknika bera da, baina kobre gainean egiten dena; xilografiari lekukoa hartu ziona, nolabait. Garai bateko argazkigintza izan zen hori ere. Estanta edo kontatu nahi zena eskuz marrazten zen lehenengo, eta gero ofizio osoak zeuden haren atzetik: marrazten zuena, irudia kobrera pasatzen zuena eta estanpatzailea. Prozesu oro horren teknikak irakasten zizkiguten Debako Arte Eskolan, eta niretzat ofizio bat ikastearen parekoa izan zen, hiru urte luze han aritu ginelako, eta denbora asko eskatzen zuelako. Deban egur gainean ere probak egiten genituen, eta jabetze eskolarako hori baliatzea pentsatu nuen, linoioa baliatuz, emaitzak errazago ikusten baitira.

Aurretik esku lanetan aritua izatea, beraz, ez da ikastarorako ezinbesteko baldintza.

Ez, hori da. Nik uste dut denok dugula zerbait adierazteko ahalmena. Nik tresnak eramango ditut, gubiak eta halakoak. Oso gauza sinpleak dira, eta lehenengo ariketak jarriko ditut, tresna horiek ezagutzeko. Eta, hortik aurrera, ikasle bakoitzak bere erritmoa hartzeko aukera izango du. Batez ere, tailerlean esperimentatu egingo dugu, eta nik uste dut zerbait polita aterako dela.

Xilografia zehazki, baina sor-



ATARIA

mena oro har lantzeko tailerra izango da, beraz.

Bai. Izan ere, askotan entzun ohi ditugu «nik ez dakit marrazten» eta antzekoak; bada, ez da beharrezkoa marrazten jakitea. Ea zer gertatzen den, sormena askatzeko hainbat musika baliatuko ditudalako, edo askotariko gaiak ere bai. Beste aukera bat izango da, grabatu kolektibo bat sortzearena: bakoitzak bere plantxan zati bat egin, gero estanpatu, eta, ondoren, beste tresna batekin, tinta paperera pasatu. Ea zertarako denbora ematen digun, hasiera batean, hamar orduko ikastaroa izango baita. Jarraipena izango balu, jarraituko genuke, baina ea zer egiteko denbora ematen digun.

Artistaren ikuspegitik, gizar-teak, oro har, eskola amaitutakoan marrazteari uzten diola uste duzu?

Marrazteko ohitura bidean galtzen dela uste dut, izan ere, jende askok du marrazteko gaitasuna. Dena den, gaur egun, hezkuntzak gauza horiek guztiak gehiago zainduko dituela iruditzen zait. Baina, bai, hala ere, bigarren mailako gauzatzat jotzen dira askotan, nahiz eta espresio modu bat gehiago izan, idaztea edo hitz egitea izan litekeen moduan. Jende askok ahalmen hori du barruan, eta ez du ateratzen; beste askok, beharbada berandu deskubritzen dute.

Sormena lantzeko tailerra izango da, baina jabetze feministara bidean. Zure ustez, zein garrantzia du sormenak jabetzerako?

Uste dut kolektiboan egiten di-

ren gauza hauek guztiak –emakumeok elkartu eta zerbait sortzea, guztiok elkarrekin–, dutela zeresana ahalduntze horretan. Latinoameriketan, adibidez, badaude beren aldarrikapenak paperera pasatzeko elkartzen diren tailerrak edo emakume taldeak. Sinergia politikak sor daitezkeela uste dut, beti daukagulako esateko zerbait.

Taldean zerbait sortzeko ideiak lagunduko du sinergia horietara iristen, ezta?

Bai. Adibidez, ni konturatzen naiz, nire lantegian ordu asko pasatzen ditudala bakarrik, eta meditazio lan bat ere bada, neu-

«Marrazteko ohitura bidean galtzen dela uste dut, izan ere, jende askok du marrazteko gaitasuna»

rri batean: gustura zaude zure munduan, sortu egiten duzu eta emaitza bat daukazu. Lan hori eduki dezakezu tailerlean gordeta, baina gustatzen zaizu mundura ateratzea ere, eta egin duzuna erakustea: «Hau izan da nire bidaia». Uste dut oso garrantzitsua dela ateratzea, eta esatea guk ere posible dugula. Izan ere, grabatzaile eta margolari ezagunak beti gizonak dira, eta emakumeak beti senarraren itzalean egon direnak, edo senarrei lagundu dietenak izan dira. Bide horretan, xilografiaren historiari pintzelkada batzuk ematen saiatuko naiz, eta emakume artistei buruzko zertzelada batzuk ere txertatu nahi ditut ikastaroan. Teoria gehiegizkorik gabe, baina

izan direla eta egon badaudela konturatzeko lain.

Emakumeei plazaren erdigunea hartzea kosta egiten zaie, baina, norbere bakardadean egiten den lan batean ere, emakumezkoen izenak falta dira. Zuk, hasi zinenetik hona, sumatu duzu erreferentzia faltarik?

Bai gaztetan, eta bai orain. Ikastaro hau prestatzeko ere informazio bila aritu naiz, eta ikusi dut zenbat eta zenbat emakume dauden itzalean; izugarria da, eta horrelakoxea da errealitatea. Izen-abizenekin emakume gutxi aritzen dira, nahiz eta, ia anonimotasunean, jende asko ariko den.

Eskualdeko emakume artisten sare bat sortu zenuten. Berriaz egindako ariketa bat da, sare hori behar duzuelako?

Talde bat sortu zen, jende asko elkartu ginen, eta beharbada bakoitza bere konfiantzaren bila gindoazen talde horretara, ahalduntze horretan. Une hartan ez zegoen orain dagoen olatu more hau, eta momentu hartan kosta egin zen taldea aurrera ateratzea. Hala eta guztiz ere, sekulako potentzialtasuna zuen taldea izan zen, Aranburu jauregian erakusketa kolektibo erraldoi bat egin genuen, baina gero ez genuen asmatu horri jarraipena ematen. Baina ni asko harritu nintzen orduan, zenbat emakume bildu ginen ikusita, eta zein gauza desberdinetan aritzen ginenak. Interesgarria izan zen, eta geure burua berresteko modu bat izan zen, beharbada.

Hogei postu Alegiako plazan, erosketak egiteko

XIII. Alegiako Artisau eta Nekazal Azoka Berezia egingo da igandean, 10:00etatik 14:00etara, herriko plazan

Eneritz Maiz Etxarri Alegia

Hamahiru urte dira jada Alegian artisau eta nekazal azoka egiten hasi zirela. Iraileko azken igandea baliatu izan dute horretarako, eta aurtengoa ere prest dute kultura batzordeko kideek.

Alegiako Artisau eta Nekazal Azoka Bereziak 11:00etan zabalduko ditu ateak, eta 14:00ak arte jendearen joan-etorrien zain izango dira saltzaileak. Hogei postuk osatuko dute azoka, eta produktu ezberdinak ikusteko aukeraz gain, nola ez, erostekoa ere izango da.

Ohi bezala, askotarikoak izango dira postuak: barazkiak, fruituak, etxean egindako hainbat elikagai, bitxiak... Azokan zerbait erosten dutenek txartel batzuk jasoko dituzte zozketan par-



Jatekorik ez da faltako. J. ARTUTXA

te hartzeko. Azoka amaitu aurretik, azokako produktuekin osaturiko sorta baten zozketa egin da, eta erosketak egin dituztenek aukera izango dute saski eder batekin etxera itzultzeko.

Goiza alaitzeko Patxaranga txaranga ibiliko da kaleetan barrera. Eguraldi txarra egingo balu, alde aurretik jakinarazi dute azoka Elorri pilotalekuan egingo litzatekeela. Alegiako Udaleko Kultura batzordeak azokara hurbiltzeko gonbidapena luzatu die herritarrei.

KAMERA ZAHARRAK

Azokara etxeko kamera zaharra hartuta joateko deia egin dute Alegiako Argazkizaleen taldek. Kamerarentzako karreteak berriek jarriko dituztela aurreratu dute, eta azoka amaieran jasoko dituzte karreteak.

Esan da behar, aurretik, ostira-lean, hilak 27, *Gabon analogikoe-tan* ateratako argazkiak erakutsiko dituztela Elizpe zineman, 20:00etatik aurrera.



Aurten Inaxio Perurena ariko da harria jasotzen. JOSU ARTUTXA

Aldabatarrak San Migel festak hasi zain

Larunbatean eta igandean ospatuko dituzte San Migel festak Tolosako Aldaba auzoan

Erredakzioa Aldaba

Uganeko festen ostean urtero iritsi ohi dira Aldabako San Migel festak. Familia eta lagunak elkartzeaz gain, auzotarrak elkartzeko aitzakia da. Asteburua borobilduz, bi egunetan bildu dute egitaraua. Festei hasiera emateko lehertuko den suziriarekin

batera, txirrindulariak aldapan gora hasiko dira. Auzo kaskora bizikletan igo edo ez, zahagi ardoan elkartuko dira guztiak. Ondoren, hankak eta eskuak arin astintzeko beta izango da Elizagoien ahizpekin.

Igandean, dantza ikuskizunaz gozatzen hasi, tokan jokatu eta herri bazkarian eseriko dira auzotarrak. Bazkalostean, urtero hutsik egin gabe izaten den herri kirol saioa izango da, eta eguna Izer eta Alabier trikitilariak girituko dute.

ALDABAKO SAN MIGEL FESTAK

Hilak 28, larunbata

17:30. Jaien hasiera, txupinazoarekin eta txirrindulari igoerarekin.
20:00. Zahagi ardoa.
23:00. Bingo jokoa.
Ondoren. Erromeria Elizagoien ahizpekin.

Hilak 29, igandea

11:30. Meza nagusia.
12:30. Alegiako Sutarri dantza tal-

deak dantza emanaldia eskainiko du.

13:30. Toka txapelketa.
14:00. Herri bazkaria (txartelak aurretik eskuratu beharko dira).
18:00. Herri kirolak. Aizkolariak: Asier Pellejero eta Luis Txapartegi. Harri-jasotzailea: Inaxio Perurena.
Oharra. Egunean zehar, Izer eta Alabier trikitilariak girituko dute auzoa.



LANAK BUKATZEN

Amezketako Udalak Ugarte auzoan segurtasuna hotzeko lanak eginak zituen, besteak beste, errepidean semaforoa jarri. Lan horiek duela bi urte egin bazituzten ere, Amezketako alderako etxebizitzetarako espaloi zati bat bukatu gabe geratu zen. Orain, espaloi zati hori egin dute, Ugarteko auzotarren segurtasuna bermatuz. E. MAIZ

atarian jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

«Errepideko lasterketetan salto bat eman dut aurten»

**EUKENE LARRARTE
TXIRRINDULARIA**

Errepidean eta pistan lehiatzen jarraituko du txirrindulari tolosarrak, baina errepidean maila gorago batean ariko da, Leongo Eneicat Pecafer taldearekin fitxatu eta gero.

Imanol Garcia Landa Tolosa

Datorren denboraldian pauso berri bat emango du Eukene Larrarte (Tolosa, 1998) txirrindulariak. Leongo Eneicat Pecafer taldearekin ariko da errepideko lasterketetan. Pistako lasterketei dagokionez, Gipuzkoa Ogi Berri taldearekin jarraituko du.

Nola izan da Eneicat Pecafer taldearekin fitxatzearena?

Gipuzkoa Ogi Berrirekin ibili naiz azken urteotan, baina aurten errepidean beste salto bat egin dut, Espainiako selekzioarekin arituz, eta ikusi dut posible dudala errepidean nazioarteko mailan ibiltzea, pistan ere maila horretan aritzearekin batera. Beraz, gai naizela ikusi dut, eta horregatik erabaki dut Eneicatekin fitxatzea.

Beraiek egin dizute eskaintza?

Aurreko urtetan ere beste talde batzuek eskaini zidaten, baina nik, egia esan, behin konpromisoa hartuta dena eman nahi nuen, eta seguru ez nengoenez, ezezkoa esan nien. Aurten, Eneicatekoek ere proposatu zidaten,

eta jasotako proposamen guztietatik egokiena iruditu zitzaidan.

Zer mailatan lehiatuko zara?

Emakumezkoetan hurrengo urterako bereizketa bat egingo da profesionaletan. Gizonezkoetan mailakatzeko hori badago, baina emakumezkoetan hori zehaztu gabe dago. Datorren denboraldiari begira World Tour mailako taldeak egongo dira, eta gero profesional Kontinental mailakoak. Nire taldea bigarren horretan egongo da.

Jauzi bat izango da zuretzat talde horrekin lehiatzea. Zer suposatzen du zehazki?

Hasteko, nik eskatzen nuena errepidea eta pista uztartu ahal izatea zen. Eneicatek ematen zidan aukera pistako lasterketak Gipuzkoa Ogi Berrirekin egiten jarraitzea, eta gero errepidean beraiekin nazioarteko mailan aritzea. Adibidez, Valentziako eta Burgosko itzuliak egin dituzte, eta Britainian ere korritu dute. Emakumeen Biran ere aritu ziren, baina, jakina denez, lasterketa hori desagertu egin da. Bestalde, Donostiako Klasikoan ere aritzeko aukera izango dut.



JOSU ARTUTXA

Beraz, lasterketa politikak dira. Talde berriarekin egutegia zabaldu egingo zait.

Profesional mailako talde batean lehiatuko zara. Zehazki zer esan nahi du horrek?

Galdetzen didatenean profesionala ote naizen, ez dakit zer erantzun zehazki. Nik soldatarik ez dut, eta talde berri horretan ere ez dut izango. Agian diru laguntza txiki bat, baina ez da gutxieneko soldata bat. Baina, beno, nik badakit zer dagoen. Agian, noizbait profesionalen baldintzak izateko lehenengo horrelako talde batetik pasa behar da eta gero jauzia eman.

Ikusten da aldaketarik emakumezkoen profesionalen mailan?

Aldaketak nabariak dira. Hasteko, telebistan gero eta lasterketa gehiago ari dira botatzen. Hori, azken batean, babesleen eta marken onurarako da. Emakumezkoen kirolean gehiago inbertitzera eramaten du horrek. 2020an gutxieneko soldata bat arautuko da. Orain arte emakumezkoetan ez da izan gutxieneko soldatarik; hau da, zu ibili zaitzke profesional baten moduan, baina dohainik. Nik uste dut pixkana pausoak ematen ari

garela; hori bai, beti dago zer hobetu. Gizonezkoetan, ni egongo naizen taldearen maila berean gutxieneko soldata badute, baina ni dohainik lehiatuko naiz. Hori bai, egunen batean World Tourreko talde batean egoteko pausoak pixkana eman behar dira, eta lehenengo horrelako talde batetik pasatzea ez dago batere gaizki.

Talde berriari finkatu duzue helbururik zuretzako?

Talde buruak esan didanez txirrindulari oso bat bezala ikusten naute. Nire ustez, oraindik guttiz definitzeko nago. Esan didatenez lasterketa batzuetan niretzako lan egingo dute, eta beste batzuetan nik egingo dut lana. Taldean badago esprinter bat, eta bion artean lan polita egin dezakegu. Nazioarteko mailan eskatuko digutena ikastea izango da. Azkenean, konpromiso maila bat eskatzen dute.

Esan duzun moduan, pistan Gipuzkoa Ogi Berrirekin jarraituko duzu.

Bai, oraingo taldearekin jarraituko dut. Tania Calvo eta ni aritu gara batez ere, eta datorren urtean Garazi Estebez ere izango dugu, oraindik juniorra dena. Talde polita osatuko dugu.

Pasa den asteburuan Espainiako Txapelketan hiru domina lortu zituen.

Emitzei begira ez dira espero nituenak izan, jakinik sasoi aldeetik ondo nengoela. Madisonen iaz lortutako titulua berretsi genuen Taniak eta biok, eta aspaldi lehiatzen ez nuen keirin proban brontzea lortu nuen. Abiadurako proban zilarrezkoa lortu genuen, baina hor urrearen bila joan ginen. Aurreko urtean zilarra lortu genuen, helmugako argazkiak erabakita. Baina orduan gustura geratu nintzen, gerturatu egin ginelako. Aurtengoan, denboran bigarren egin genuen eta ikusten genuen finalerako hobetu ahal genezakeela, batez ere nik. Azkenean irteera gaizki ateratu zitzaidan eta akatsa egin nuena ni izan nintzen. Beraz, pena pixka batekin.


2019ari begiratu, zer nabarmenduko zenuke?

Errepideko Europako Txapelketan izan nintzen lehenengo aldiz, Espainiako selekzioarekin. Aurtengoan helburuetako bat hori zen, errepidean koska bat gora egitea, eta selekzioan sartzea. Gero, Europako Txapelketan zorte txarra izan nuen. Orain, hotzean pentsatzen hasiz gero, jarritako helburuak baino gehiago lortu ditut, eta beraz, pozik egotekoa da.

Pistan omniumean absolutu mailan Espainiako Txapelketa irabazi nuen, eta gero Espainiako Kopa ere irabazi nuen. Nazioarteko probetan ere koska bat gora egin dut, eta Frantziako zazpigarren postu bat lortu nuen omniumean.

Tokioko Olinpiar Jokoetara joateko aukerarik baduzu?

Leire Olaberria eta biok madison modalitatean joateko apustua egin genuen, baina kanpoan geratu ginen hautatzailearen erabakirengatik, eta ordudunik ez naute hautatzen Espainiako selekzioarako. Tokiora joateko aukerarik ez dut. Pariserako prestatzen hasi beharko gara.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 ARIKRUTZ Oñatiko kobak

Espeleotxiki; abentura familian. Familiarentzako sarrera.

Umeak 6 urtetik gora izan behar ditu. Bista eguna, taldea osatzean jarriko da. 943 08 20 00 / arrikruz@onati.eus / OÑATI

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51



2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera



www.aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

3 ALTZOA proiektua - Goiogana baserria

Bi lagunentzako gau bateko egonaldia (behe denboraldian)



altzoa.eus AMOROTO - Bizkaia

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

3 OSIN MASAJE ETA ESTETIKA ZENTRUA

Masajea

609447090
665754930
Hozpel kalea
ANOETA



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54



OSTEGUNA, 2019KO IRAILAK 26
Argitaratzailea:
 Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
 villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
 anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
 alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goitz, Ekuain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 26

AGENDA

Deialdiak

Amezketak. Ohiko bilkura, 19:00etan, udaletxeko batzar aretoan.

Tolosa. 6 eta 16 urte bitarte dituen edonorentzat matrikula irekia dute Tolosaldea IK Tn. Hala, frogak egiteko eta informazioa emateko, egunak jarri dituzte. Gaur, 17:15ean izango da bigarren saioa, Tolosako igerilekuan. Bainujantzia eta txanoa eman beharko da. Informazio gehiago teknikariak@tolosaldeakt.eus edo 688 807 405.

Bidania-Goitz. 17:00etan, eskolako neska-mutiek bisita egingo dute eguneko zentrora, eta elkarrekin eskulanak egingo dituzte. Ondoren txokolate jatea izango da.

Lizartza. Gaztetxoentzako bertso saio parte-hartzailea, udal aretoan, 18:00etan.

Villabona. Pentsioei buruzko hitzaldia Salbadora erretiratuen egoitzan, 17:00etan, Mikel Eizmendi eta Joxerra Garmendiarekin.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Eguneko berriak; Tolosaldeko alkateei elkarrizketak, gaurkoan Eneko Maioz Orexa alkatea, *Baserri*tik lehen sektoreari buruzko atala...

11:00. Eutsi Goiari. Imanol Garcia Landak gidatuta, Tolosaldeko kirolari eskainitako saioa.

12:00. Entzuteko Jaiok. Musikari eskainitako tartea.

16:00. Zebraidea. Arrosa Sareko magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosalde

16:30. Hiri baratzea

17:30. Gaurkoan Tolosalde

21:30. Gaurkoan Tolosalde

22:00. Lotsagabe saioa (Nerea Urbizu)

22:30. Zumaiako triatloia

23:30. Gaurkoan Tolosalde

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Leyre Leyeune Maset. Euskal Herria kalea, 24. 943 673274.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Amarotz auzoa, 9. Telefono zenbakia: 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro lasaia izango dugu, nahiz eta, goiz partean eta iluntzean hodei batzuk ikusi. Tenperaturak gora egingo du, eguneko erdiko orduetan, 23-25 gradu izango ditugu.

Bihar. Goizean eutsiko badi ere, arratsaldean eta batz ere iluntzean, euritara joko du. Tenperatura maximoak behera egingo du, eta 21-23 graduan geratuko dira.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.

Eskualdeko irratia martxan da berriro

‘Ataria irratia’-k denboraldi berriari ekingo dio; informazioa eta entretenimendua uztartuko diren eduki berriak izango dira

Erredakzioa

Motorrak berotzen jardun ostean, badator *Ataria irratia*-ren denboraldi berria. Ohi bezala, Tolosaldeko informazioa eskaintzen jarraituko du entretenimendurako edukiak partekatzearekin batera. Guztia 107,6-an, fm bidez jarraitu nahi izatera, edo bestela, ataria.eus-en.

Hain juxtu, egunerokotasunarekin lotutako edukiekin hasiko da *Pasahitza* magazina astelehenetik ostiralera, 09:00etatik aurrera. Goizeko lehen ordu horretan helduen eta gazteen solasaldiak eta solasaldi politikoak hartuko du lekukoa ostegunetan eta ostiraletan. 11:00ak bitarteko gainerako tarreak askotariko gaiekin osatuko dira. Astelehenetan, esaterako *Postalak* tarreakin munduan zehar bidaiatzen jarraituko dugu eskualdeko lagun bidaiarien laguntzarekin; astearteetan, arkeologia, komunikazio ez bortitza, telesailak eta zinema edota Tolosaldeko pertsonaiak jorratuko ditugu; asteazkenetan eskualdeko garapen agentziari eskainiko diogu tartea; ostegunetan, literatura jorratuko dugu *Letren errepublika*-n eta lehen sektorea *Baserri*-tik ataletan; eta, ostiraletan, kimika, azken ostirala, psikopedagogia, ekonomia edota erreze-



‘Ataria irratian’ gaztetxoak saioak grabatzen. ATARIA

tak izango dira entzungai, gure uhinetan, besteak beste. Ostiraletan, halaber, ekologia ere izango dugu hizpide, *Amalurra* atal berrian.

KIROLAK, BERE LEKUA

Kirolak ere pisua izaten jarraituko du *Ataria irratia*-n, denboraldi berrian ere. Hala, eskualdeko kirola jorratzen duen *Eutsi goiari* saioari, herri kirolei eta pilotari buruzko saioak gehituko zaizkio.

Patxadaz egindako eta patxadaz entzuteko solasaldiek ere tartea izango dute astelehen eta

astearteetan, eta bertsolaritzari buruzko (*H)ari naizela* eta trikitiari buruzko *Hauspo artean* saioek ere jarraipena izango dute. Denboraldiak aurrera egin ahala saio berriak ere entzuten joango dira, eta horietan ahots berriak –ezagunak nahiz ezezagunak— entzungo dira. Eta, nola ez, musika saioak ere izango dira gurean.

Azpiarratzekoa da, *Ataria irratia* herritarrek ere egiten dutela, eta ateak zabalik dituela era batera edo bestera parte hartu nahi duen edonorentzat.

TOLOSA

ONENETAN ONENA
ERDI-PREZIOAREN
ERDI-PREZIOAN

Eta orain...

LEHENGO
HILA DOAN!

19'9€
/hil



euskaltel